



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko martxoaren 7a

19. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

- Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina aldatzekoa. Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Demokratikoen Elkargunea parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).
- Lege proposamena, zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen dimisioak eragindako egoerari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (6. or.).
- Jabeldura, industriendako dirulaguntza politikari buruzkoa. Aralar parlamentu-taldeak egina (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da prostituzioaren egiazko eraginari buruzko azterlan bat egin dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ezgaituentzako zentroak kudeatzen dituzten enpresetako langileekin izenpetutako ituna bete dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Uxueko santutegiko dorrean dagoen tximistorratzaren egoera azter dezan. Kultura eta Turismo Batzarrekoak bazter utzia (9. or.).
- Adierazpen politikoa, Porto Alegren (Brasil) egindako Parlamentuen Bosgarren Mundu Foroaren azken adierazpenarekin bat egiteko. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, zenbait osasun etxetan larrialdietako zerbitzuak indartzeko moduari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (10. or.).

- Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen lansariari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (10. or.).
- Galdera, trenbide geltoki berriaren kokalekuari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, haur eskoletan lanean aritzen direnen lan hitzarmenei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari toki azpiegituren planei buruz ematen zaion informazioari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nagoretik Orotz-Betelura bitarteko errepideko zenbait tarte egiteko lanei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, barizelaren txertoa haurren egutegi ofizialean sartzeari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Deskarga jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko ordezkariak New Yorkera eginiko bidaiari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Zangituko industrialdeari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (15. or.).
- Galdera, ebakuntza kirurgiko baten ondoan sortu ahal diren beharren inguruko protokolorik ba ote den jakiteko, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (16. or.).
- Galdera, Baztango Francisco Joaquín Iriarte zaharren eta jubilatuen etxeko tarifak igotzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix M.<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Aldapa kalean aparkaleku bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (17. or.).
- Galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Osasun Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Hezkuntza Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (20. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 5/2005 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa, zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (22. or.).

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

**Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesean, Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu-taldeek lege proposamena aurkeztu dute, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina aldatzekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. eta 204. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu Bategina aldatzeko lege proposamena tramitera onartzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2005ko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina aldatzeko Lege proposamena.**

**ZIOEN AZALPENA**

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Giza Eskubi-deen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuen 1948ko abenduaren 10ean. Adierazpen haren 25. artikulua ezartzen du, besteak beste, gizaki orok, alargun geratuz gero, bizitza maila egokia izateko eskubidea duela.

Gizartearen lorpen handi hori Espainiako zuzenbide positiboan sartu zen Gizarte Segurantzako oinarri buruzko abenduaren 28ko 193/1963 Legearen bitartez, eta zehaztu egin zen ondotik eman ziren testu artikuludun eta bateginean.

Lorpen hori, eskubide hori, azkenik, Gorte Nagusiek onetsi eta Espainiako herriak erreferendum bidez berretsi zuen 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioko I. tituluko III. kapituluan jaso eta goretsi zen.

Gizartearen eskariak, ordea, ez dira aldaezinak; aitzitik, aldatzen doazen beharrezanez zoz zaizkie, eta gizarte-sentiberatasuna duen edozein estatuk hauteman behar ditu.

Hain zuzen ere, herritarren eskariei azkartasunez eta legegintzako tresna zalu bidez erantzuteko gaitasunak ematen dio estatu bati benetako gizarte-estatuaren izaera.

Azken aldiotan, herri-eskari zabal bat sortu da, gizarteko sektore esanguratsuek babestu dutena eta planteatzen den intentsitatearen pareko zorrotasunarekin aditu eta erantzun behar zaiona. Eskatzen dena da alargun pentsioen ehunekoak gaur egungo mugetatik goiti egitea, oinarri arautzailearen ehuneko 70era bitarte; prestazio hori jasotzen dutenen dirusarrera guztien azken zenba-

tekoa ezin izanen da, hilean, 600 euroren azpitik geratu, baldin eta pertsona hartzaileak 65 urte beteak baditu edo gizarte babes publikoaren sistemako gutxieneko osagarria jasotzeko eskubidea badu, sistema horretan urtero ezartzen diren kapital nahiz lan errenten mugekin.

Eskari hori koherentea ez ezik egokia ere bada; izan ere, zehaztu eta kuantifikatu egiten du Toledoko Hitzarmena izenekoaren 12. gomendia, "dirusarrera gutxieneko alargun pentsioak hobetzea" defendatzen baitu.

Herritarren eskari zuzen horri erantzun beharra planteatzerakoan, nahitaez baloratu behar da horren bideragarritasun juridikoa eta ea bidezkoa den autonomia erkidego bateko legebiltzar batek -Foru Parlamentuak hain zuzen ere- halako ekimen bat sustatzea.

Argudio nahiko izan daiteke ekimena autonomia erkidego bakoitzaren eremura -Foru Komunitatearen eremura Nafarroaren kasuan- mugatzeko, hain zuzen ere eremu horretan gertatzen eta areagotzen direlako herritar taldeen artean errenta mailan alderik handienak. Halatan, Espainiako lurralde jakin batzuetan alargun pentsioak osatzeko formula bat ezartzeak ez du diskriminazio insoledarioa eragiten, Espainiako herrialdeetako errealitate sozialean gertatzen diren errenta ezberdinak berdintzeko tresna bat da-eta. Agian, komeni da legeak ematen duen aukera hori gizarte zerbitzuetarako gordetzea, eta Gizarte Segurantzako sistemako kutxa bakarraren printzipio finkatuaren gaineko eztabaidarik ez piztea.

Proposamenak Espainia osoko pentsioei eraginen die, eta hortaz, eztabaida Gorte Nagusiei -Kongresuari eta Senatuari- dagokie.

Kontuan hartu behar dugu, orobat, proposatutako neurriek berehalakoan izanen duten eragin ekonomikoa. Eta horretarako erreferenterik onena da pentsioei buruzko 2001eko apirilaren 9ko hitzarmenaren lege-garapenak izan duen eragina, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina nabaritu dena. Halatan, alargun pentsioen ondoz ondoko igoerek -%45etik 52ra- eta mota horretako pentsioei buruzko gainontzeko neurri osagarriek eragin oso gutxi izan dute, hain gutxi non ez duen inolako murrizketarik eragin Toledoko Hitzarmenari esker eratu zen erreserba-funtsean -2001eko 5.000 milioi eurotatik 2004ko amaierako ia 24.000 eurotara igo da-.

Finean, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorak badu ahalmen eta kaudimen nahiko alargun

pentsioak oinarri arautzailearen % 70era bitarte igo eta igoera hori bere gain hartzeko eta, era berean, pentsio horien gutxieneko osagarri batzuk ezartzeko, lege honen hartzaileei gutxienez 600 euro hilean jasotzea bermatuko dietena.

Azken kautela gisa ikusi behar dugu ea eskari honek -gaur egun bideragarria da- etorkizunean gatazkarik ekarriko duen, eskuratutako edo eskuratzear dauden eskubideekiko konpromisoerik diru aldetik aurre egiterik ez izatearen ondorioz. Hori dela-eta, prospekzio demografiko guztiek iradokitzen dute alargun pentsioak ehunekotan gutxiago izanen direla prestazio multzoaren barrenean, familia- edo bizikide-unitateen taxukera berriaren eraginez eta emakumeak lan merkatura samaldakara sartzearen eraginez.

Aztertu egin beharko genuke, bukatzeko, Nafarroako Parlamentuak halako ekimen bat aurkezteko ahalmenik duenentz. Ahalmen hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 19.1.b) artikuluan jasotzen da, eta Espainiako Konstituzioko 87.2 artikulua babesten du. Horrenbestez, ondoko testu artikuluduna proposatzen dugu.

**Artikulu bakarra.** Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina aldatzea.

Ekainaren 20ko 4/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 174. artikuluari 4. eta 5. idatz-zati berriak gehituko zaizkio, eduki honekin:

"4. Alargun pentsioen oinarri arautzailea ehunekoko 70ekoa izanen da.

5. Gizarte babes publikoaren sisteman kotizaziopeko prestazio osagarria izateko eskubidea ezartzen da, baldin eta hortik ateratzen den alargun pentsioak ez badu hilean 600 euroko kopurua gainditzen, kapital nahiz lan errenten bidez lortutako dirusarreraren mugak kontuan hartu eta gero.

Urtero, urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko, gaurkotu egingen da alargun pentsiorako ezarritako gutxieneko zenbatekoa, aurreko urteko kontsumorako prezioen indizearen igoera kontuan hartuta."

#### **Azken xedapena**

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

## Lege proposamena, zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzkoa

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2004ko abenduaren 20ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### ERABAKIA:

1. Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege pro-

posamena prozedura arruntari jarraikiz tramitatzeari.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barneko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2005eko martxoaren 31ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 126. eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2005ko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen dimisioak eragindako egoerari buruzkoa.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen dimisioak eragindako egoerari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **JABELDURAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduren 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako jabeldura honek hurrengo osoko bilkurarako presako tramitazioa izan dezala eskatzen du. Gizarte Ongizate Departamentuaren egoerari buruzkoa da jabeldura, kontuan hartuta departamentu horretan legegintzaldi honetan izan diren aldaketak eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak dimisioa aurkeztu duela orain dela gutxi.

Otsailaren 22an, Nafarroako Gizarte Ongizateko kontseilari Palacios jaunak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen dimisioa onartu zuen. Dimisioaren arrazoiak pertsonalak izan dira; hala adierazi dute Nafarroako egunkariek Gobernuak iturriak aipatuz. Hala ere, ematen du bestelako arrazoiak ere izan direla tartean eta legegintzaldi honetan zehar garatzen ari den krisi politiko eta kudeaketazkoaren beste kapitulu bat dela hau.

Horrela, bada, ez dirudi arrazoizkoa gaur Palacios jaunak zuzentzen duen departamentuko zuzendaritza taldean hainbeste aldaketa, dimisio, kargu-uzte eta ordezkapen izatea eta horiek departamentuko zuzendari nagusia, Nafarroako Gizarte Ongizatearen zuzendari kudeatzailea edota kontseilaria bera ukitzea. Ezin da ahaztu bi urte baino epe laburragoan Palacios jaunak Berruzo andrea ordeztu duela, Alli Fernández jaunak Esparza jauna eta Esparza jaunak Alli Fernández jauna. Horretaz gain, aldaketa horietakoren bat izan denean zuzenean hautatutako goi karguen lansarien igoera handiak izan dira; halaber, bestelako gertakariak ere izan dira, hala nola Aspace elkartearen krisialdi luzea, Gobernuak ezgaituen zentroi buruzko hitzarmena ez betetzeak sortutako polemika, alargunen pentsioak aintzat ez hartzea eta abar.

Gertakari horiek guztiak larritzat jo badaitezke administrazio publikoaren edozein esparrutan, are gehiago Gizarte Ongizate Departamentuaren jarduketaren eremuan gertatzen badira. UPN-CDN alderdiek osatutako Gobernuak menpekotasuna duten pertsonen ematen zaien laguntzaren kudeaketa kaskarra egiten du eta, horretaz gain, departamentu horretako etengabeko krisiak kezka eragiten du pertsona horien senideengan, baita herritarrengan oro har ere.

Azken dimisio honek harridura eragin du; izan ere, Alli Fernández jauna menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko sistema publiko baten alde azaldu eta egun batzuetara gertatu da.

Erabat arrazoizkoa da gertatutakoari buruzko zalantza izatea, bai azken dimisioari dagokionez, bai legegintza honetan jazotakoei dagokienez; izan ere, itxura guztien arabera, lehia politikoa eta gatazka ideologikoa dira tarteko, baita menpekotasuna duten pertsonen eman beharreko laguntzaren kudeaketa-ereduarekin loturiko interesak ere.

Hori dela eta, kontuan hartuta departamentu horretan legegintzaldi honetan izan diren aldaketak eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak dimisioa aurkeztu duela orain dela gutxi, Gizarte Ongizate Departamentuaren egoerari buruzko jabeldura hau aur-

keztu diogu Nafarroako Gobernuako lehendakari Sanz jaunari.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an.

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Jabeldura, industriendako dirulaguntza politikari buruzkoa.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak industriendako dirulaguntza politikari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **JABELDURAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuako lehendakari Sanz jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Industriari emandako dirulaguntzen politikari buruzko jabeldura, zalantzan jarri baitira, zehazki Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak duela gutxi emandako epaiaren xede den foru dekretuari dagokionez. Izan ere, epai horren bidez erabat baliogabetzat jo du 2003ko apirilaren 28ko 91/2003 Foru Dekretuaren xedapen iragankorra. Aipatu xedapena eguzki energia eta biomasa aprobetxatzeko proiektuetan inbertsioak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak ematea arautzeari buruzko 2003ko maiatzaren 22ko 80/2003 Foru Aginduaren bidez garatu zen (88. Nafarroako Aldizkari ofiziala).

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2005eko otsailaren 24an.

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prostituzioaren egiazko eraginari buruzko azterlan bat egin dezan.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da prostituzioaren egiazko eraginari buruzko azterlan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek

eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren

babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Orain dela gutxi, Arartekoak txosten berezi bat egin du Nafarroako Parlamentuarentzat, "Giza eskubideak eta prostituzioa Nafarroan" izenburua duena, alegia. Txostena irakurri eta bertan ematen diren gomendioak ikusirik, parlamentu-talde honen iritziz, oso garrantzitsua da ikerketa bat egitea, prostituzioak Nafarroan daukan egiazko eraginari buruz, kontuan hartuta azken urteotan egoera aldatu egin dela eta gaur egun prostituten tipologia duela urte gutxikoaren bestelakoa dela. Jakina denez, gaur egun prostituta gehienak etorkinak dira eta, horretaz gain, legez kanpokoak.

Arartekoak txostenean dioenez, aldez aurreko azterketa egin behar da orain arte garatutako ekin-tzen eraginkortasunari eta emaitzei buruzko balantzea egiteko. Horrek ahalbidetuko du gaur egun aplikagarri den lege esparrurako alternatibak

aztertzea, baita legea aldatzeko aukera ere, prostituten lan eskubideak aitortze aldera.

Hori dela eta, Aralar parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prostituzioaren arazoak Nafarroan daukan egiazko eraginari buruzko ikerketa bat egin dezan. Ikerketa horrek honako alderdiak bildu beharko ditu:

- Prostituzioaren egoera Nafarroan (klubetan, pisuetan, kalean, gizonetzkoen prostituzioa eta transexualena).

- Laguntza baliabideak.

- Osasun arloko laguntza baliabideak.

- Nafarroan prostituzioan aritzen direnen lan eta ekonomia egoera.

Iruñean, 2005eko otsailaren 22an.

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaituentzako zentroak kudeatzen dituzten enpresetako langileekin izenpetutako ituna bete dezan.**

### **ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaituentzako zentroak kudeatzen dituzten enpresetako langileekin izenpetutako ituna bete dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Duela gutxi, Agedna, Aspace eta Servirecord elkarten menpe dauden ezgaituei laguntza emateko zentroetako 500 langileek salatu dute ez dituztela jaso 2004. urteko atzerapenak, 400.000 euro inguru, alegia.

Joan den azaroaren 19an langileen sindikatuek sinatu zuten hitzarmenean 2004tik 2008ra bitarteko ekitaldiak hartu ziren kontuan eta arlo horretan



ko 500 langileen lan baldintzak parekatzea lortu zuen 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Foru administrazioa da zentro horiek bere osotasunean finantzatzen dituen baina, langileen ordezkarien arabera, kontzeptu horretarako erreserbatutako kontusaila galdu egin da, akats instrumental bat dela medio.

Administrazioak, atzemandako akatsa zuzentzeaz gain, gogoan hartu eta argi izan behar du menpekotasun zuzena dagoela berak eginiko ekarpenen eta langileek jasotzen dutenaren artean, nahiz eta langileek aipatutako enpresekin izan lan harremana.

Sorturiko egoeraren larritasuna dela eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere betebeharrak betetzera, langileen ordezkariekin sinatutako hitzarmena errespetatu dadin eta foru administrazioak finantzatzen dituen Servirecord, Agedna eta Aspace enpresetako langileentzat 2004rako eta 2005erako hitzartutako igoerak aplikatu daitezzen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 22an.

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Uxueko santutegiko dorrean dagoen tximistorratzaren egoera azter dezan.**

### *KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Uxueko santutegiko dorrean dagoen tximistorratzaren egoera azter dezan".

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak, 2004ko abenduaren 1ean egindako

bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2004ko azaroaren 2ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 25ean.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

## **Adierazpen politikoa, Porto Alegren (Brasil) egindako Parlamentuen Bosgarren Mundu Foroaren azken adierazpenarekin bat egiteko.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Eledunen Batzarrak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

"Nafarroako Gorteak Porto Alegren (Brasil) 2005eko urtarrilean egindako Parlamentuen Bos-

garren Mundu Foroaren azken adierazpenarekin bat egiten dute".

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, zenbait osasun etxetan larrialdietako zerbitzuak indartzeko moduari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea zenbait osasun etxetan larrialdietako zerbitzuak indartzeko moduari buruz foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Gripeak eta beste arnas-patologia batzuek neguko kanpainan izan duten eragina ikusirik, Osasun Departamentuak "zerbitzua indartzeko baliabideak" ezarri zituen, osasun etxeetako larrialdi zerbitzuetan laguntza emateko.

Hala ere, osasun etxe batzuetan ez daukate zerbitzua indartzeko pertsona horientzat kontsultarik, denak beteta baitaude.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Lehena. Nola lortu den zerbitzua indartzea kontsultarik ez daukaten osasun etxeetan.

Bigarrena. Kontsulta erabilgarririk ez egoteagatik zerbitzua indartzeko pertsonen lan egiterik izan ez duten kasurik gertatu den.

Iruñean, 2005eko otsailaren 18an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

**Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen lansariari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen lansariari buruz foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman diezaion:

Gaur hedabideen bitartez jakin dugunez, "Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaile berria izanen den Nicolás Iribas Sánchez de Boadoren lansaria 54.000 euro gordinekoa izanen da kargua hartzen duenean, eta ez gaur egungo zuzendari José Luis Alli Fernándezek kobratzen duen 85.200 eurokoa. Honek dimisioa aurkeztu du "arrazoi pertsonalak" direla medio, baina karguan dirau Iribas jaunak ordeztu arte, Nafarroako Gobernuak ez baitu oraindik ofizialki izendatu. Gaur egun, Nicolás Iribas Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailea da. Gizarte Ongizateako kontseilari José Ignacio Palacios jaunak atzo esan zuenez, kargu hori betetzen duen pertsonak lehen kargu horretan kobratzen zen lansaria jaso dezan proposatuko du, alegia, "zuzendari nagusiek eta lehendakariaren aholkulariek" jasotzen dutena eta 2005. urterako 54.486,04 eurokoa izanen dena (3.891,86 euro hilean), hau da, Alli jaunak jasotzen zuena baino 30.700 euro txikiagoa.

Berri honek harridura handia sortu du, kontuan hartzen badugu Gobernuak lehendakariak 2004ko ekainaren 9an Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean esandakoa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen soldatari buruz.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak hauxe esan zuen: "une hartan ulertzen genuenez, hartu beharreko ardurak, egin beharreko planteamendua eta epe laburrean hartu beharreko erabakiak zirela eta, zalantzarik gabe, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen lansariak Osasunbideko zuzendari kudeatzailearen parekoa izan behar zuen. Horrexegatik da erakunde autonomoa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua; izan ere, hala ez balitz, eta profil egokia duten pertsonak hautatzerik bagenu, ondoren ordain ekonomikoa emateko, batzuetan merkatuko arauari jarraikiz, ez litzateke beharrezkoa erakunde autonomoak sortzea. Izan ere, funtzionarioen lansariei buruzko araubideak berak debekatzen digu gehiago edo egokitzat jotzen duguna ordaintzea, adibidez, zuzendari nagusiaren eginkizunak betetzen dituztenei, hau da, departamentu bateko zuzendari nagusi izendatzen ditugunei. Baina gure araubideak ahalbidetzen du ordaintzea Osasunbideko zuzendari kudeatzaileari ordaintzen zaiona edo eta une honetan Gizarte Ongizatearen

Institutuko zuzendari kudeatzaileari ordaintzen ari zaiona. Eta hori posible da kargu horiek berekin duten erantzukizuna ere desberdina delako; izan ere, erakunde autonomoetako kudeatzaile karguak betetzen dituztenen erantzukizuna funtzio publikoaren arloan zuzendaritza nagusiak betetzen dituztenena baino handiagoa da, hartzen duten erantzukizuna pertsonala baita, ez delegatua".

Eta aurrerago, halaxe esan zuen: Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari-kudeatzailea Osasunbideko zuzendari kudeatzailearekin parekatzeak dakar sozietate publikoetako administrazio kontseiluetan parte ez hartzea; eta nire ustez, egokiagoa da jarduera bat egiteagatik ordaintzea, modu iraunkorrean eta beste batekin bateraezina izanda ere, osagarriekin saritzea baino. Izan ere, jaun-andreok, kasu honetan planteamendu hori ere aztertu zen, administrazio kontseiluetan sartzearena, baina estatututik eratorritako lansariei buruzko politikak gabeziak baditu ere, zalantzarik gabe, nire ustez, enpresa publikoak ez dira erabili behar gabezia horiek arintzeko".

Eta hau gehitu zuen, besteak beste: "Erakunde autonomoak dauden bitartean, ni ez nago ados lansariak homologatzeko politika aplikatzearekin. Zergatik? Ez delako gauza bera Nafarroako Administrazio Publikoetako Institutuko zuzendari kudeatzaile izatea, adibidez, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaile edota Osasunbideko zuzendari kudeatzaile izatea; ez da gauza bera, esanak esan. Ez da gauza bera Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailea izatea eta Nafarroako Emakumearen Institutuko edota Nafarroako Familiaren Institutuko zuzendari kudeatzailea izatea, besteak beste, eskaintza eta eskaerarengatik soilik bada ere; izan ere, sozietate batzuetan, institutu batzuetan, berrogeita hamar funtzionario aurki ditzakezu institutu jakin bateko zuzendari kudeatzaile izateko prest eta, aldiz, bakarra besterik ez zenuke aurkituko, institutu horretako zuzendari kudeatzailearen lansari berarekin Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko edo Osasunbideko zuzendari kudeatzaile izateko erantzukizuna har dezakeena. Argi eta garbi".

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Egia al da Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen lansaria jaistea erabaki duela?

Hala bada, zer dela eta aldatu da Nafarroako Gobernuaren irizpidea? Zuzendari kudeatzaile horri bere erantzukizunetako batzuk kentzea erabaki al da?

Nafarroako Gobernuak erabaki al du aipatu zuzendari kudeatzailea administrazio kontseiluren bateko kide izendatzea, bere lansaria osatzeko?

Iruñean, 2005eko otsailaren 24an.

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

## **Galdera, trenbide geltoki berriaren kokalekuari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, trenbide geltoki berriaren kokalekuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer informazio dauka Gobernuak Iruñeko RENFEren geltoki berriaren kokalekuari, aurrekontuari eta lanak amaitzeko aurreikuspenari buruz?

Iruñean, 2005eko otsailaren 18an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, haur eskoletan lanean aritzen direnen lan hitzarmenei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, haur eskoletan lanean aritzen direnen lan hitzarmenei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Foru administrazioko funtzionarioak edo zuzeneko langileak izan gabe haur eskoletan lan egiten duten pertsonen dagokienez, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehena. Departamentu eskudunak ezagutzen al duen pertsona horiei aplikatzen zaien lan hitzarmena. Lan hitzarmen horren ezaugarriak.

Bigarrena. Lan hitzarmen hori aplikatzearen ondorioz sortu ahal izan diren eta departamentuak ezagutzen dituen lan mugikortasun eta eze-gonkortasun egoerak.

Hirugarrena. Departamentuaren aurreikuspena edo ikuspegia, lan hitzarmen hori aldatzeari buruz.

Iruñean, 2005eko otsailaren 18an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari toki azpiegituren planei buruz ematen zaion informazioari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari toki azpiegituren planei buruz ematen zaion informazioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2005eko otsailaren 18an Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazio Batzordean eginiko agerraldian, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakariak esan zuen erakunde horrek ez duela informaziorik jasotzen toki azpiegituren planen exekuzioari buruz, Gobernuari eskatu arren, eta daukan informazio bakarra hedabideen bitartez jasotakoa dela.

Harritzekoa da informazio falta hori; izan ere, federazioaren eginkizuna da plan horien jarraipenean parte hartzea, Toki Araubideko Foru Batzordearen bidez.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zergatik ez zaio toki azpiegituren planen exekuzioari buruzko informaziorik ematen Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari?

Iruñean, 2005eko otsailaren 18an.

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

## **Galdera, Nagoretik Orotz-Betelura bitarteko errepideko zenbait tarte egiteko lanei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nagoretik Orotz-Betelura bitarteko errepideko zenbait tarte egiteko lanei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako gal-

dera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Gaur egun eraikitze lanak egiten ari dira Nagoretik Orotz-Betelura doan errepidearen hainbat zatitan.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehena. Jatorrizko proiektuarekiko izan diren eta aurreikusten diren desbiderapenak, aurrekontuari eta trazadurari dagokienez.

Bigarrena. Gaur egungo trazadura kontuan hartuta, kilometro bakoitzeko aurreikusten den kostua.

Iruñean, 2005eko otsailaren 18an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, barizelaren txertoa haurren egutegi ofizialean sartzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESKARGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Deskarga andreak egindako galdera, barizelaren txertoa haurren egutegi ofizialean sartzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga parlamentariak, Legebiltzarreko Erregela-

menduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun diezazkion:

José Manuel Vizcay eta Enrique Bernaola pediatrek barizelaren aurkako txertoa Nafarroako Haurren Egutegi Ofizialean sartzearen komenigarritasunari buruz eginiko adierazpenak entzunda:

Ba al du asmorik departamentuak txertoa egutegian sartzeko? Hala bada, ba al du aurreikusita eperik? Hala ez bada, eman txertoa egutegian ez sartzearen arrazoiak.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an.

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko ordezkariak New Yorkera eginiko bidaiari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko ordezkariak New Yorkera eginiko bidaiari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek prentsaren bidez jakin ahal izan duenez, Nafarroako Gobernuaren ordezkari-

tza batek bidaia bat egin du, Iruñeko Udalaren eta Merkataritza Ganberaren ordezkariarekin batera, antza denez, Nafarroako produktu jakin batzuk ezagutarazteko xedearekin.

Horri buruz, parlamentariak ondokoak jakin nahi ditu:

Lehenbizi: Aipatu sustapen-bidaian izan den Nafarroako Gobernuko ordezkariak osatu duten pertsonak.

Bigarren: New Yorkera eginiko bidaiarako jarritako helburuak eta lortu direnak.

Hirugarren: Egin diren gestioak, harremanak eta bilerak eta zer ekitalditan parte hartu duen aipatu ordezkariak.

Laugarren: Bidaiaren aurrekontu xehetua eta bidaren gastuaren exekuzio erreala, xehetua.

Iruñean, 2005eko otsailaren 22an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Zangituko industrialdeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Zangituko industrialdeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Zangituko industria sustatzeko Gobernuak eginiko jarduketari

buruzko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

1993. urtean, Altsasuko Udalak Zangitun udal industrialde bat eraikitzeko ekimena aurkeztu zion Industria Departamentuari.

Harrezkero Foru Gobernuak eta Nasuinsak jarduketa batzuk egin badituzte ere, itxura denez, gaur egun proiektua geldirik dago.

Altsasun lurzoru industrial falta dago eta hori oztopo gairazina da garapen ekonomiko eta sozial egokia izan ahal izateko. UPN-CDN alderdiek osatzen duten Gobernuaren utzikeriak eta axolagabekeriak eskualde horretan enpresak jartzeko eta lanpostuak sortzeko aukera asko galtzearen arduradun egiten dute.

Zer egin du Nafarroako Gobernuak azken urteotan Altsasun eta bere eraginpeko eskualdean lur-zoru industrial sortzeko eta, bereziki, Zangituko industrialdea eraikitzeko? Gaur egun zein egoera-

tan daude Zangituko industrialdea eraikitzeko proiektuaren tramitazioa eta eginiko gestioak?

Iruñean, 2005eko otsailaren 22an.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, ebakuntza kirurgiko baten ondoan sortu ahal diren beharren inguruko protokolorik ba ote den jakiteko.**

### *FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, ebakuntza kirurgiko baten ondoan sortu ahal diren beharren inguruko protokolorik ba ote den jakiteko Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuari:

Duela gutxi nire ahaide zuzen bat egon da ospitaleratuta Tuterako Reina Sofía ospitalean. Profesional guztiek izugarri lagundu diote, bai medikuek, bai erizainek eta laguntzaileek oro har.

Nire ahaide zuzena zegoen solairuan adin handiko jende asko zegoen. Ikusi dudanez, pertsona horiei alta medikoa ematerakoan ez zaie joaten bisitan gizarte laguntzaile edo antzeko lanak egiten dituen norbait, pertsona horien egoeraz galdetzeko; izan ere, horietako batzuek adin handia dute, ebakuntza egin diete eta ez dute beren oinarrizko beharretan lagunduko dien seniderik.

Horregatik, jakin nahi dut Nafarroako ospitale publikoetan protokolorik ba ote dagoen, beharrezko laguntza jasotzeko baliabiderik ez duten adineko pertsonak ebakuntza baten ostean etxean izan ditzaketen beharrei erantzuteko, gizarte langile baten bidez.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an.

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano



## **Galdera, Baztango Francisco Joaquín Iriarte zaharren eta jubilatuen etxe-ko tarifak igotzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.<sup>a</sup> TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Félix M.<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egindako galdera, Baztango Francisco Joaquín Iriarte zaharren eta jubilatuen etxe-ko tarifak igotzeari buruzkoa. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Félix

Tabernak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Baztango Francisco Joaquín Iriarte zaharren eta jubilatuen etxe-ko batzordeak egonaldiaren 2005. urterako tarifak modu neurrigabearen igotzea erabaki du. Izan ere, igoera % 40 baino gehiago-koa da.

Horiek horrela, galdera hau aurkeztu dugu:

1. Zer lege babes dauka igoera horrek? Nafarroako Gobernuak ba al du igoeraren berri? Oniritzia eman al du?

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an.

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

## **Galdera, Aldapa kalean aparkaleku bat eraikitzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Aldapa kalean aparkaleku bat eraikitzeari buruzkoa. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Duela gutxi, Iruñeko Udalak Aldapako San Ferminen proiektaturiko aparkalekua eraiki ahalko den ala ez esan dezan eskatu dio Kultura Zuzendaritza Nagusiarri.

Berriro ere Kultura Departamentuak Aldapako San Ferminen agertu diren aurkikuntza arkeologikoen garrantziaz duen iritzia azaldu behar du.

Berriro ere arkeologoen agerian utzi dute erro-matarren garaiko historiaren zati bat (I. mendetik VI.era bitartekoa) eta, antza denez, eremu horretan etxebizitzak eta eraikin handiak izan ziren. Halaber, pertsona ospetsu batena izan zitekeen brontzeko zigilu bat ere aurkitu dute, baita erdi aroko hilobiak ere, San Pedro elizakoak hain zuzen ere.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

- Aldapako San Ferminen aurkitutako aztarnen garrantzia kontuan hartuta, aparkalekuaren eraikuntza geldiarazteko asmorik ba al du Kultura kontseilariak?

- Eraikuntza geldiarazten bada, departamentuak aztarnak ezkututuko ditu?

- Aztertu al du aztarnak agerian uzteko aukera, horiek ikertzen jarraitzeko eta, eremua egokitu ondoren, herritarrek ikusi ahal izateko?

Iruñean, 2005eko otsailaren 24an.

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

## **Galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Sarrigurengo lehen etxebizitzak laster emanen direla-eta zerbitzuak abian jartzeari buruzko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak adi-

erazi zuenez, aurtengo martxoaren amaieran emanen dira Sarrigurengo lehen etxebizitzak.

Jakina denez, gaur egun urbanizazio hori ez dago hiri-eremu jarraituaren barruan, Mendillorritik eta Gorraiztik gertu dagoen arren.

Hori dela eta, beharrezkoa dirudi aurreikustea han biziko direnek izanen dituzten beharrak, urbanizazioari berari loturikoak dauden argiteria publikoa, barrualdeko bideak eta saneamendua alde batera utzita. Horri lotuta, jakin nahi dugu zer jarduketa egin dituen edo egin asmo dituen Nafarroako Gobernuak, laster Sarrigurengo urbanizazioan biziko diren pertsonen hainbat arlotako zerbitzuak izan ditzaten, hala nola osasun arlokoak, gizarte zerbitzuetakoak, garraio publiko kolektiboa, urbanizaziotik errepide sare orokorrerako irteerak eta abar.

Sarrigurengo urbanizazioko lehen etxebizitzak laster emanen direla kontuan hartuta, zer jarduketa egin ditu edo egiteko asmoa du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, urbanizazio horretako bizilagunek departamentu horren ardurapeko zerbitzuak egiaz izan ditzaten?

Iruñean, 2005eko otsailaren 24an.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Sarrigurengo lehen etxebizitzak laster emanen direla-eta zerbitzuak abian jartzeari buruzko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak adi-

erazi zuenez, aurtengo martxoaren amaieran emanen dira Sarrigurengo lehen etxebizitzak.

Jakina denez, gaur egun urbanizazio hori ez dago hiri-eremu jarraituaren barruan, Mendillorritik eta Gorraiztik gertu dagoen arren.

Hori dela eta, beharrezkoa dirudi aurreikustea han biziko direnek izanen dituzten beharrak, urbanizazioari berari loturikoak dauden argiteria publikoa, barrualdeko bideak eta saneamendua alde batera utzita. Horri lotuta, jakin nahi dugu zer jarduketa egin dituen edo egin asmo dituen Nafarroako Gobernuak, laster Sarrigurengo urbanizazioan biziko diren pertsonen hainbat arlotako zerbitzuak izan ditzaten, hala nola osasun arlokoa, gizarte zerbitzuak, garraio publiko kolektiboa, urbanizaziotik errepide sare orokorrerako irteerak eta abar.

Sarrigurengo urbanizazioko lehen etxebizitzak laster emanen direla kontuan hartuta, zer jarduketa egin ditu edo egiteko asmoa du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, urbanizazio horretako bizilagunek departamentu horren ardurapeko zerbitzuak egiaz izan ditzaten?

Iruñean, 2005eko otsailaren 24an.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Osasun Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Osasun Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Sarrigurengo lehen etxebizitzak laster emanen direla-eta zerbitzuak abian jartzeari buruzko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

Nafarroako Gobernuak, laster Sarrigurengo urbanizazioan biziko diren pertsonen hainbat arlotako zerbitzuak izan ditzaten, hala nola osasun arlokoa, gizarte zerbitzuak, garraio publiko kolektiboa, urbanizaziotik errepide sare orokorrerako irteerak eta abar.

Jakina denez, gaur egun urbanizazio hori ez dago hiri-eremu jarraituaren barruan, Mendillorritik eta Gorraiztik gertu dagoen arren.

Hori dela eta, beharrezkoa dirudi aurreikustea han biziko direnek izanen dituzten beharrak, urbanizazioari berari loturikoak dauden argiteria publikoa, barrualdeko bideak eta saneamendua alde batera utzita. Horri lotuta, jakin nahi dugu zer jarduketa egin dituen edo egin asmo dituen Nafarroa-

ko Gobernuak, laster Sarrigurengo urbanizazioan biziko diren pertsonen hainbat arlotako zerbitzuak izan ditzaten, hala nola osasun arlokoa, gizarte zerbitzuak, garraio publiko kolektiboa, urbanizaziotik errepide sare orokorrerako irteerak eta abar.

Sarrigurengo urbanizazioko lehen etxebizitzak laster emanen direla kontuan hartuta, zer jarduketa egin ditu edo egiteko asmoa du Osasun Departamentuak, urbanizazio horretako bizilagunek departamentu horren ardurapeko zerbitzuak egiaz izan ditzaten?

Iruñean, 2005eko otsailaren 24an.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Hezkuntza Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Sarrigurengo etxebizitzak laster entregatuko direla-eta Hezkuntza Departamentuak egin beharrekoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Sarrigurengo lehen etxebizitzak laster emanen direla-eta zerbitzuak abian jartzeari buruzko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

Nafarroako Gobernuak, laster Sarrigurengo urbanizazioan biziko diren pertsonen hainbat arlotako zerbitzuak izan ditzaten, hala nola osasun arlokoa, gizarte zerbitzuak, garraio publiko kolektiboa, urbanizaziotik errepide sare orokorrerako irteerak eta abar.

erazi zuenez, aurtengo martxoaren amaieran emanen dira Sarrigurengo lehen etxebizitzak.

Jakina denez, gaur egun urbanizazio hori ez dago hiri-eremu jarraituaren barruan, Mendillorritik eta Gorraiztik gertu dagoen arren.

Hori dela eta, beharrezkoa dirudi aurreikustea han biziko direnek izanen dituzten beharrak, urbanizazioari berari loturikoak dauden argiteria publikoa, barrualdeko bideak eta saneamendua alde batera utzita. Horri lotuta, jakin nahi dugu zer jarduketa egin dituen edo egin asmo dituen Nafarroako Gobernuak, laster Sarrigurengo urbanizazioan biziko diren pertsonen hainbat arlotako zerbitzuak izan ditzaten, hala nola osasun arlokoa, gizarte zerbitzuak, garraio publiko kolektiboa, urbanizaziotik errepide sare orokorrerako irteerak eta abar.

Sarrigurengo urbanizazioko lehen etxebizitzak laster emanen direla kontuan hartuta, zer jarduketa egin ditu edo egiteko asmoa du Hezkuntza Departamentuak, urbanizazio horretako bizilagunek departamentu horren ardurapeko zerbitzuak egiaz izan ditzaten?

Iruñean, 2005eko otsailaren 24an.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán



---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **5/2005 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa, zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duen urtarrilaren 17ko 5/2005 Foru Dekretua hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea, abenduaren 14ko 13/2000 Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 12. artikuluan ezarritakoa betez, zeinak esku ematen dion Nafarroako Gobernuari behar diren arau behin-behineko guztiak emateko; hain zuzen ere, Hitzarmen Ekonomikoak hala agintzen duelako, Estatua-ren araudi substantibo eta formazko beraren arabera gobernatu behar diren tributueterako.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## **5/2005 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa, zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Foru Komunitateak eta Estatuak izenpeturiko Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikulua ezartzen du zerga bereziak ordainarazteko orduan, zerga araubide arruntan eta Nafarroako foru araubidean finkatzen diren oinarritzko printzipio eta funtsezko eta formazko arauak ildo beretik jo behar dutela.

Bestetik, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarriak, martxoaren 7ko 3/2002 Foru Legearen bidez eman zitzaion idazketan, esku ematen dio Nafarroako Gobernuari behar adina behin-behineko arau ezar ditzan, Nafarroako Foru Komunitateko zerga berezietan eta Estatuako lurralde bakoitzean indarra duten oinarritzko printzipioak

eta funtsezko arauak eta arau formalak berak izan daitezzen, Hitzarmen Ekonomikoan xedaturikoaren arabera.

Behin-behineko arauak Nafarroako Parlamen-tura igorriko dira, hartu eta hamar eguneko epean, behin betikoz onets daitezzen.

Estatu osoan, batetik Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorreko azken xedapenatariko seigarrenak zerga berezien arloko arau-hauste eta zehapenen araubidea aldatu du eta, bestetik, 2005eko Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 2/2004 Legeak 100eko 2an gaurkotu ditu zerga berezietako berariazko tasa batzuk Horregatik guztiagatik, abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarri hartan adierazitakoarekin bat, beharrezkoa da Parlamentuak behin betikoz onetsi bitartean Nafarroan behin-behineko aplikatuko diren arauak ematea, foru dekretu baten bidez. Behin-behineko arauok Parlamen-tura igorri behar-ko dira, onartu ondoko hamar eguneko epean.

Hori horrela, Toki Administrazioako kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2005eko urtarrilaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legeko artikulua batzuk aldatu dira. Aldaketek 2005eko urtarrilaren 1az geroztik dute eragina. Hona hemen artikulua haien testu berria:

Bat.19. artikulua.

"19. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien arloko arau-hauste eta zehapenen araubidea Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean, foru lege honetan zerga haietariko bakoitzerako berariazko arauetan eta hurrengo idatz-zatietan xedaturikoaren arabera arautuko da.

Partikularzki, foru lege honen arabera ezartzen diren diru bidezko zehapenei Tributuei buruzko Lege Orokorreko 71. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen dena murriztuko zaie.

2. Betiere, honakoak dira arau-hauste larriak:

a) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede diren produktuak foru lege honetan eta hau gartzeko ematen diren xedapenetan eskatzen diren betebeharrak bete gabe ekoiztea.

b) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede diren produktuak sal-erosteko zirkulatu eta edukitzea, foru lege honetako 15. artikuluko 7. idatz-zatian xedaturikoa bete gabe egiten denean.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren arau-hausteak produktuen zenbatekoei legozkiekeen kuoten 100eko 100eko isun batez zehatuko dira. Kuotak arau-haustea atzematean indarra duen tasa erabiliz kalkulatu dira.

Zehapenak isunaren zenbatekoa 100eko 25etik 100eko 25era gehituz mailakatuko dira, tributu arloko arauak behin baino gehiagotan hausten direnean.

Arau-hausleak, arau-hauste berria egin baino lehenagoko bi urteetan, aurreko idatz-zatian ezarritako edozein debeku ez betetzeagatik bide administratiboan ebazpen irmoaren bidez zehatzen denean gertatuko da gorabehera hori Orobat, zehapenak isunaren zenbatekoa 100eko 25etik 100eko 25era gehituz mailakatuko dira, kontrolatzeko arauak hausten direnean.

4. Tributu arloko arau-hauste larriengatik, gainera, zehapen hauek ezartzen ahalko dira:

a) Arau-hausleek bere dituzten establezimenduak sei hilabetez ixtea, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak erabakirik, edo behin betikoz ixtea, Nafarroako Gobernuak erabakirik. Arau-hausleak establezimendua aldi baterako zehapena ezarri baino lehenagoko bi urteetan arau-hauste larri bat egiteagatik bide administratiboan ebazpen irmo baten bidez zehatzen denean ixten ahalko dira behin betikoz.

b) Sei hilabetez prezintatzea edo salmenta automatikorako tresnak behin betikoz bahitzea, arau-haustean haien bidez egiten direnean. Arau-hausleak establezimendua aldi baterako zehapena ezarri baino lehenagoko bi urteetan arau-hauste larri bat salmenta automatikorako tresna baten bidez egiteagatik bide administratiboan ebazpen irmo baten bidez zehatzen denean bahitzen ahalko dira behin betikoz.

Letra honetan aipatzen diren zehapenak ezartzeko, salmenta automatikorako tresnaren titularra

eta tresna dagoen establezimenduaren titularra hartuko dira subjektu arau-hausletzat.

Hurrengo datoren c) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik, zehapen nagusia ezartzeko eskumena duen organoak erabakiko du zehapen horiek ezartzea.

c) Hala ere, b) letran aipatzen diren zehapenak aurreko a) letran aipatzen direnekin bat datozenean, salmenta automatikorako tresna behin betikoz bahitzea bidezko izanen da, establezimendua behin betikoz ixtea erabakitzen bada. Gorabehera hori gertatzen den kasuetan, aurreko a) letran aipatzen diren organoek erabakiko dute zehapenak ezartzea.

5. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede diren produktuak erregelamendu bidez ezartzen diren agiriak eduki gabe zirkulatuz gero, tributuen arloko arau-hauste larria izan ezik, tributu arloko arau-hauste bakun gisa zehatuko da, zirkulatzen ari diren produktuei legokiekkeen kuotaren 100eko 10eko isun baten bidez, betiere 600 euro gutxienez.

6. Marka fiskalik edo aitortzekorik ez duen tabakoa sal-erosteko edukiz gero, betebeharrak hori erregelamenduaren arabera eskatzen ahal denean, honelaxe zehatuko da:

a) 75 euroko isun baten bidez, marka horiek eduki gabe sal-erosteko edukitzen diren 1.000 zigarroko, gutxienez ere 600 euro egiten den arau-hauste bakoitzean.

b) 600 euroko isun baten bidez, gainerako tabakoari buruz eginiko arau-hauste bakoitzeko.

Aurreko a) eta b) letretan aipatzen diren zehapenak isunaren zenbatekoa 100eko 50etik 100eko 50era gehituz mailakatuko dira, arauak behin baino gehiagotan hautsiz gero. Ulertuko da araua behin baino gehiagotan hautsi dela subjektu arau-hausleak, arau-hauste berria egin baino lehenagoko bi urteetan, idatz-zati honetan aipatzen diren arau-hausteak egiteagatik bide administratiboan ebazpen irmo baten bidez zehatzen denean.”

Bi. 25,1. artikulua.

“1. Zerga, beren esparruko produktuei dagokienez, epigrafe hauekin bat ordainaraziko da:

1.a) epigrafea.100 bol.eko 1,2tik goitikoa ez den gradu alkoholiko bolumetrikoa duten produktuak: 0 euro hektolitroa.

1.b) epigrafea.100 bol.eko 1,2tik 2,8ra bitartekoa den gradu alkoholiko bolumetrikoa duten produktuak: 2,50 euro hektolitroa.

2. epigrafea. 100 bol.eko 2,8tik goitiko den gradu alkoholiko bolumetrikoa eta 11tik beheitiko gradu laua duten produktuak: 6,80 euro hektolitroa.

3. epigrafea. 11tik 15era bitarteko gradu laua duten produktuak: 9,05 euro hektolitroa.

4. epigrafea. 15etik 19ra bitarteko gradu laua duten produktuak: 12,33 euro hektolitroa.

5. epigrafea. 19tik goitiko gradu laua duten produktuak: 0,83 euro hektolitroa eta gradu laua.”

Hiru.31. artikulua.

“31. artikulua. Karga-tasa.

Zerga karga-tasa hauei ordainaraziko zaie:

a) 100 bol.eko 15etik beheitiko gradu alkoholiko bolumetrikoa duten bitarteko produktuei: 30,29 euro hektolitroa.

b) Gainerako bitarteko produktuei: 50,48 euro hektolitroa.”

Lau.35. artikulua.

“35. artikulua. Karga-tasa.

Alkohol puruaren hektolitroko 754,77 euroko tasan ordainaraziko da zerga, 36. eta 37. artikuluetan xedaturikoa galarazi gabe.”

Bost. 36. artikulua. 2.a).5garrena.

“5garrena. Karga-tasa. Alkohol puruaren hektolitroko 660,49 euroko tasan ordainaraziko da zerga. Idatz-zati honetan xedaturikoa ez doa 37. artikuluan xedaturikoaren kontra.”

Sei. 36. artikulua. 2.b).5garrena.

“5garrena. Karga-tasa. Alkohol puruaren hektolitroko 660,49 euroko tasan ordainaraziko da zerga. Idatz-zati honetan xedaturikoa ez doa 37. artikuluan xedaturikoaren kontra.”

Zazpi.36,4. artikulua.

“4. Destilatzaile txiek Europako Batasuneko beste estatu batzuetan ekoiziriko edari deribatuak sartzea.

Europako Batasuneko beste estatu batzuetako ekoizle independienteek ekoiziriko edari deribatu-ei dagokien tasa, urtean alkohol puruaren 10 hektolitro baino gehiago ekoizten ez badituzte, alkohol puruaren hektolitroko 660,49 eurokoa izanen da.”

Zortzi.37. artikulua.

“37. artikulua. Uzta biltzaileen araubidea.

Eskuzko destilazioaren bidez lorturiko edari deribatuak zuzenean fabrikatik uzta biltzaileen kontsumora bideratzen direnean, erregelamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan, karga tasa alkohol puruaren hektolitroko 178,16 eurokoa izanen da. Tasa honek alkohol puruaren 16 litroren baliokidea den kopurua izanen du muga, uzta biltzaile bakoitzeko, urte bakoitzean.”

#### Azken xedapena

Foru dekretu honek biltzen dituen arauak behin-behinekoak dira, Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b>  <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urtebete ..... 42,35 euro  Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,10 »  Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,27 »</p>	<p><b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b>  <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b>  «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»  Navas de Tolosa, 1  31002 IRUÑA</p>
--	--